

SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarritzkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



LANDAREAK UREZTATU ALA EZ

JARDUERA MOTA

Esperimentazio jarduera.

LEKUA

Gela edo eskola.

EDUKIA

Landareak

Zelulanitzak dira, hau da, zelula ugariz osatuta daude. Zelulek kloroplastoak dituzte barnean, fotosintesia egiteko. Nutrizio autotrofoa egiten dute. Horrek esan nahi du, landareek berek sortzen dutela beren materia organikoa, fotosintesiaren bidez. Lurzoruan finko bizi dira, ez dira lekuz aldatzen.

Landareen atalak

Hiru atal dituzte: sustraiak, zurtoina eta hostoak (orria, gainaldea, txortena).

-Sustraiak: hauen funtzioa landareak lurrera eustea eta elikagaiak hartzea da. Lurretik ura eta gatz mineralak hartzen ditzte.

-Zurtoina: Honi fruituak eta hostoak eustea dagokio. Baso eta odien bidez, sustriak hartutako elikagaiak garraiatzen ditu. Sustraiak eta zurtoina kontrako zentzuan hazten dira, hau da, sustraiak beheraka, lurzurutik eta zurtoina goraka, lurretik aterata. Zurtoinaren arabera landare ezberdinak sailkatu daitezke: belarkarak (*herbaceo-lignina* gabe), zurezkoak eta lurpeko zurtoinak (adbz: tipulena).

-Hostoak: Hostoetan nutrizio funtzioa ematen da, arnasketa eta fotosintesiaren bidez. Transpirazioa ere hauetan gertatzen da, honek esan nahi du ura bapore moduan botatzen dutela. Hosto mota ugari daude; horien banaketa eta formaren arabera, orriaren ertzaren formaren arabera edota nerbiazioaren arabera.



ZER LANTZEN DA

- Landare eta animalien jakin-mina, zainketa eta errespetua hasierako jarrerekin ingurune naturala mantentzeko.
- Pentsamendua, hausnarketa eta gauzen azterketa.
- Kontentzia eta elkarriketa arauak: bilgunean.
- Behaketa eta datuen bilketa.

MATERIALA

- Tamaina berdineko bi lorontzi
- Lorontzietako substratua
- Bi landare (barazki, lorea...)
- Ureztigailua

DESKRIBAPENA

Landareek ura guztiz beharrezkoa ote dute, nabari al zaie ur falta dutenean eta soberan dutenean?

Esperimentu honetan, landare bat ur kopuru egoki batekin haziko dugu eta besteari ur gutxiago botako diogu.

Behin landareak lorontzian ipinita, leku eguzkitsu batean kokatuko ditugu eta edozein arrazoiatatik lekuz aldatzen baditugu leku berera eramango ditugu. Oso garrantzitsua da, landare biak leku eta egoera berean egotea.

Landare baten substratua beti heze mantentzen saiatuko gara (behatzarekin ukitu eta hatza zikindu behar du), bestea aldiz lehorrago mantenduko dugu. Egokiena, bat egunero apur bat ureztatzen dugunean bestea bi egunetan behin ureztatzea da. Egunero argazki bat aterako diegu bi landareei eta beraien bilakaera alderatuko dugu. Bestetik zuzenki batekin landarearen altuera neurtuko dugu eta taula batean apuntatu.

Eztabaida:

Zer eragin izan du urak landareetan?

Aldaketa nabarmenik pairatu al du landare lehorrak?